

# Haurren eskubideei buruzko hitzarmena



1989KO  
AZAROAREN  
20KOA



# Arartekoaren harrera zuzeneko bulegoak

## **01005 Vitoria-Gasteiz**

Prado, 9

Telf.: 945 135 118

Faxa: 945 135 102

e-mail: [defensorpv@ararteko.net](mailto:defensorpv@ararteko.net)



## **20004 Donostia-San Sebastián**

Askatasun hiribidea, 26 - 4.

Telf.: 943 420 888

Faxa: 943 427 297



## **48001 Bilbao**

Alameda de Mazarredo, 15 - 5.a, A

Telf.: 944 234 409

Faxa: 944 241 844



Web orria: [http:// www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)



# HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

## 1989ko azaroaren 20koa

### 1.– 18 urte

18 urte bete arteko gizaki guztiak dira haur, legearen arabera adin nagusitasuna lehenago lortu duena izan ezik.

### 2.– Bereizkeriarik ez

Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei aplikatu behar zaizkie inolako bereizketarik egin gabe eta haurren edo gurasoen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, etnia- edo gizarte-jatorria, iritzia, maila ekonomikoa, ezintasun fisikoak, edo bestelako edozein ezaugarri kontuan izan gabe. Estatuak edozein bereizkeriaren aurrean haurra defendatzeko neurriak hartuko ditu.



### **3.– Haurraren interes goren**

Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan haurren interesak lehentasun osoa izango du.

Estatu kideek, berriz, hitz ematen dute umearen ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta arreta bermatuko dituztela. Halaber, ziurtatu egingo dute haurrak babestu eta zaintzen dituzten erakunde eta zerbitzuek ezarritako arauak betetzen dituztela, batez ere segurtasun, osasun, langileen kopuru eta gaitasunaren aldetik, eta gainbegiraketari dagokionez.

### **4.– Estatuaren erantzukizuna**

Estatuaren betebeharra izango da Hitzarmen honetan jasotako eskubideak betearazteko behar diren neurriak hartzea.

### **5.– Gurasoen erantzukizuna**

Haurrak beren gaitasunen eta garapenaren araberrako heziketa eta orientabidea jasoko ditu Hitzarmen honetan jasotzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzan. Lan hori gurasoek, senide, tutore edota legezko ordezkariak egingo



dute. Estatuak arduradun horien erantzukizun, eskubide eta betebeharrak errespetatuko ditu.

## **6.– Bizitzeko eskubidea**

Hurrek berez dute bizitzeko eskubidea. Estatuak ahalik eta ondoen bermatu behar ditu haurraren biziraupena eta garapena.

## **7.– Izena eta herritartasuna**

Haur orok du, jaiotzen denetik, izena eta herritartasuna izateko eskubidea eta, ahal dela, bere gurasoak ezagutzeko eta gurasoek zaindua izatekoa.

## **8.– Identitatearen babesa**

Estatuaren betebeharra da haurraren identitatea babestea, eta beharrezkoa bada, haurrari identitatea edo horren elementuren bat (izena, herritartasuna, familia-loturak) kendu bazaio, estatuak ahalik eta arinen itzularaziko dio.

## **9.– Familia elkartuta**

Haurra ez da gogoz kontra gurasoengandik bananduko haurraren interes gorenerako beharrezkoa ez bada.



## **10.– Familiaren bateratzea**

Haurrek eta gurasoek edozein herrialdeetatik irten eta sartzeko eskubidea dute, familia batzeko edo guraso eta seme-alaben arteko harremanak mantentzeko bada.

## **11.– Legez kanpoko atxikitze eta lekualdatzeak**

Estatu kideek neurriak hartuko dituzte haurrak legez kanpoko prozeduren bidez estatutik atera ez ditzaten eta atzerrian legez kanpo atxiki ez ditzaten. Horretarako, estatu kideek alde biko edo alde anitzeko hitzarmenak bultzatuko dituzte.

## **12.– Haurraren iritzia**

Haurrak bere iritzia adierazteko eskubidea du berari dagozkion gai guztietan, baita iritzi hori aintzat hartua izan dadin ere.

## **13.– Adierazpen askatasuna**

Haur guztiek dute edozein motatako ideia eta informazioak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea, betiere besteen eskubideen aurkakoak ez badira.



## **14.– Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna**

Haurrak pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna izateko eskubidea du. Gurasoen eskubide eta betebeharra da haurra bideratzea bere eskubideak erabil ditzan. Estatu kideek, hortaz, errespetatu beharko dituzte gurasoen eskubide-betebeharrok.

## **15.– Elkartzeko eskubidea**

Haurrak elkartzeko eta batzarrak egiteko eskubidea du.

## **16.– Bizitza pribatuaren babesa**

Haurrak eskubidea du legez kontra edota nahierara bere bizitza pribatuan, bere familian, bere bizilekuan eta bere korrespondentzian beste inork muturrik sar ez dezan, baita bere ohoreari eta izen onari eraso ez diezaieten ere. Halako erasoen aurrean legeen babesa izango du.

## **17.– Informazio egokia lortzea**

Estatu kideek berebiziko garrantzia aitortzen diete hedabideei, eta bermatu egingo dute haurrak iturri desberdinetako informazioa jaso ahal izatea. Estatuak bultzatu egingo du herrien arteko ezagutza, elkar aditzea



eta haurren ongizate morala eta jatorrizko kulturaren errespetua –baita giza talde txikietako beharrian linguistikoak ere– babesten dituen informazioak zabaltzea. Halaber, haurren ongizatearen aurka doazen informazio eta material guztietatik babesteko eta horien aurka neurriak hartzeko betebeharra estatuarena da.

### **18.– Gurasoen erantzukizuna**

Estatu kideek aitortu egiten dute umearen hazkuntza eta garapena guraso bien erantzukizuna dela eta beren ardura nagusia haurren interesa izango da. Estatuak beharrezko laguntzak eskaini behar dizkie guraso edo legezko ordezkariari eginkizun hori bete dezaten. Haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuak bultzatuko ditu, lanean ari diren gurasoak ere aintzat harturik.

### **19.– Tratu txarren aurkako babesa**

Estatuak neurri guztiak hartuko ditu gurasoek edo zaintzeko erantzukizuna duten beste edozein pertsonak haurrari inolako kalte fisiko nahiz mental, arduragabekeria, tratu txar edo gehiegikeriarik egin ez diezaioten.



## **20.– Familia giroan bizi ez diren haurren babesa**

Estatuaren betebeharra da beren familiatik kanpo dauden haurrei babes eta zainketa berezia ematea; adopzioan eman edo egokia den zentro batera eramango ditu, adibidez, betiere haurren jatorri kulturala kontuan izanik.

## **21.– Adopzioa**

Adopzioa onartu eta baimentzen duten estatuetan, haurren interes gorenak izango du lehentasuna. Adopzioak legeen arabera izan behar du eta eskumena duten agintarien baimenak izango ditu. Nazioarteko adopzioa onargarria izango da bere herrialdean ezin bada era egokian zaindu, baina horrek ez dio inori diru onurarik ekarriko. Hori guztia estatuak bermatuko du.

## **22.– Haur errefuxiatuak**

Errefuxiatutzat hartutako haurrei edo errefuxiatu estatutua eskatzen dutenei behar duten laguntza eta babesa eskainiko zaizkie. Estatuak, nazioarteko erakundeekin elkarlanean, haurrei babes eta laguntza hori bermatuko die eta haurra eta gurasoak elkartzeko ahaleginak egin behar ditu.



### **23.– Haur ezinduak**

Haur ezinduak bere duintasuna bermatuko duen bizimodu egoki eta betea edukitzeko eskubidea du, betiere berez baliatzeko gai izaten eta gizartean parte hartzen lagunduko dioten baldintzetan. Haur elbarri edo adimenezintasunen bat duenari zainketa, hezkuntza eta trebakuntza bereziak eskainiko dizkiote gizarte-zerbitzuek. Estatuak beste herrialde batzuek arlo honetan dituzten beharrianak izango ditu kontuan.

### **24.– Osasuna**

Umeak ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eta medikuntza- eta errehabilitazio-zerbitzuak izateko eskubidea du. Estatuak, berriz, haurren hilkortasun-tasa jaisteko neurriak hartuko ditu, oinarrizko laguntza medikoa eta aldeaz aurretiko zainketak eskainiko ditu eta haurra jai ondoren osasun-arreta amei ziurtatuko. Halaber, gurasoek, haurrek eta gizarte osoak orobat honako guztiak badakizkitela ziurtatu behar du: haurren elikaduraren eta osasunaren oinarrizko printzipioak, amaren esnea hartzearen abantailak, garbitasunaren garrantzia... Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte haurren

osasunaren aurkako jarduera tradizionalak desagerrarazteko, nazioarteko lana bultzatuko dute eta gogoan hartuko ditu bereziki garapen bidean dauden herrialdeen beharrak.

## **25.– Barnetegiaren aldizkako ebaluazioa**

Baldin eta agintariek haur bat berariazko establezimenduren batean sartu badute haren osasun fisiko edo mentala zaintzeko edo tratatzeko, haurren eskubidea da aldian-aldian bere egoera eta internamenduko gainerako zirkunstantziak berrikustea.

## **26.– Gizarte-segurantza**

Estatu kideek jagon egingo dute haur guztiek duten gizarte-segurantzaren onura eta dagokien laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

## **27.– Bizi-maila**

Haur guztiek dute beren garapenerako bizi-maila egokia izateko eskubidea eta gurasoen betebeharrak nagusia da eskubide hori bete dadin bizi-baldintzak bermatzea. Estatuak eskubide hori betetzeko neurriak hartu behar ditu eta, behar denean, umeen arduradunei laguntza ekonomikoa emango die.



## **28.– Hezkuntza**

Ume orok du hezkuntzarako eskubidea. Estatuak gutxienez derrigorrezko lehen irakaskuntza doakoa izatea bermatu behar du. Bigarren hezkuntza orokorra eta lanbidezkoa garatuko ditu eta haur guztiek horretarako aukera izatea bultzatuko du. Estatuak saiatu egingo da ikasleen hutsegite-kopurua gutxitzen eta eskolako diziplina haurren duintasuna errespetatuz aplikatuko da. Halaber, estatuak kideek nazioarteko kooperazioa bultzatuko dute hezkuntza gaitan, garapen-bidean dauden herrialdeak bereziki gogoan hartuz.

## **29.– Hezkuntzaren helburuak**

Estatuak kideek onartzen dute hezkuntzak haurren nortasuna eta gaitasun teoriko eta praktikoa garatzeko izan behar duela. Horretarako haurrari giza eskubideenganako errespetua irakatsi eta herrien arteko bakea, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dira. Hezkuntzak naturarenganako errespetua irakatsiko die haurrei, baita norberaren zein besteen kulturarenganako ere.

## **30.– Gutxiengoak eta herri indigenak**

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko haurrak, edota jatorrizko herrikoak, eskubidea izango du

giza talde bereko beste batzuekin batera bere bizitza kulturala izateko, bere erlijioa praktikatzeko eta bere hizkuntza erabiltzeko.

### **31.– Aisialdia, jolasak eta kultur jarduerak**

Haurrak aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea du.

### **32.– Adingabekoen lana**

Estatuaren betebeharra da haurrak beren osasun, hezkuntza edo garapenerako kaltegarria izan daitekeen lanetik babestea, baita enplegurako gutxieneko adina ezartzea eta lanaren baldintzak arautzea.

### **33.– Estupefazianteen erabilera eta trafikoa**

Estatuak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu, legezkoak, administratiboak, sozialak eta hezkuntzazkoak, estupefaziante eta substantzia psicotropikoen erabileratik haurrak babesteko eta substantzia horien ekoizpen eta trafikoa haurrak erabil daitezten galarazteko.

### **34.– Sexu-esplotazioa**

Estatu kideek haurrak babesteko dituzte edozein motatako sexu-esplotazio eta gehiegikeriatik, baita prostituzio eta jarduera pornografikoetatik ere.



### **35.– Haurren bahiketa, salmenta eta tratua**

Estatuak behar diren neurri guztiak hartuko ditu edozein helbururekin eta edozein modutara egiten den haurren bahiketa, salmenta, eta tratua eragozteko.

### **36.– Bestelako esplotazio motak**

Estatu kideek haurra babestu egingo dute bere ongizaterako kaltegarriak diren beste esplotazio-mota guztietatik.

### **37.– Tortura, heriotza-zigorra eta askatasun eza**

Ezein haurrek ez du jasango tortura, pena, tratu krudel, anker edo degradatzaileak. Ez da heriotza zigorrik ez betiko kartzelarik ezarriko 18 urtetik beherako haurrek egindako delituengatik. Espetxeratzea azken errekurtoa izango da eta ahalik eta denbora gutxien iraungo du. Askatasuna kendu zaion haurra gizalegez eta duintasunez tratatuko da. Halaber, bere familiarekin harremanak izateko eta laguntza juridiko edo bestelako laguntza egokia izateko eskubidea du.

### **38.– Gatazka armatuak**

Estatu kideek bere esku dauden neurri guztiak hartuko dituzte 15 urte baino gutxiago dituztenek liskarretan

zuzenean parte har ez dezaten. Gatazka armatuetan kaltetutako haurrek babes eta zainketa bereziak jasotzeko eskubidea dute.

### **39.– Birgizarteratzea**

Estatu kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte tortura, gatazka armatuak, utzikeria, tratu txarrak, esplotazioa edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo degradatzaileak jasan dituzten haurrak birgizarteratzeko Suspertze eta birgizarteratzea, haurraren osasun, begirune eta duintasunaren aldeko giroan egingo dira.

### **40.– Adingabekoen justizia-administrazioa**

Legeak haustea leporatzen zaion haurra edo delitu baten errudun deklaratu dena duintasunez tratatua izango da, betiere giza eskubideenganako eta besteen oinarrizko askatasunenganako errespetua sendotzeko eran. Delitua egin duen haurrak eskubidea du bere oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen, batik bat bidezko prozedura baten berme guztiak betez: defentsa eta laguntza juridikoa izateko eta, hizkuntza ez badaki, interpretari bat izateko eskubidea du.



## **41.– Indarrean dauden arauen errespetua**

Estatuko lege batek edo estatu horretan indarrean dagoen nazioarteko legedia Hitzarmen honetan ageri dena baino onuragarriagoa baldin bada umearentzat, lege horiek aplikatuko dira eta ez Hitzarmena.

## **42.– Hitzarmenaren zabalkundea**

Estatu kideek hitzematzen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai haurrei bai eta helduei ere.

### **Protokoloak:**

- Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, haurrak gatazka armatuetan parte hartzeari dagokiona.
- Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari dagokiona.

**Bai protokoloak, bai Hitzarmenaren testu osoa, Arartekoaren web orrialdean irakur daitezke ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)).**